

ESTATUTUAK

LEHENENGO KAPITULUA

TOBERA MUSIKA-ESKOLA



HERRI ADMINISTRAZIO
ETA JUSTIZIA SAILA
Elkarteen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN
PÚBLICA Y JUSTICIA
Registro de Asociaciones

1. artikulua.-

1990eko ekainaren 21ean inskribaturiko eta Erregistro-zenbakia G/2172/90 duen Tobera Musika-eskola Elkartearen Estatuak ekainaren 22ko 7/2007 Legearen eta martxoaren 22ko 1/2002 lege Organikoan, Elkarteei buruzkoan, ezartzen denaren arabera aldatu eta gaurkotu dira 2015eko otsailaren 24an egindako Ezohiko Batza Orokorrean.

Aipatutako elkarteak honako araubidea izango du: Elkarteen Legea, Estatutu hauek berak (Legearen aurkakoak ez badira), bere Zuzendaritza-batzordeak behar bezala hartutako erabakiak (Legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak xedatzen dituen arauak (azken hauek osagarri besterik ez dira izango).

ELKARTEAREN HELBURUAK

2. artikulua.-

Elkarte honen helburuak honako hauek dira:

- a) Musika-kultura sustatzea musikaren askotariko alorrak irakatsiz eta hedatuz (musika-hizkuntza, pianoa, txistua...), kontuan hartuta Zegamako, Segurako, Zeraingo eta Mutiloako herritarren beharrak eta eskaera.
- b) Oro har, musika-kultura lagunduko duten ekintzak antolatzea: kontzertuak, konferentziak, mahai-inguruak, entzunaldiak, ikasketa-zirkuluak, argitalpenak...
- c) Herrietan diren musika- nahiz kultura-izaerako elkarte eta taldeekin harreman-bideak eratzea eta gauzatzea egitarau orokorrak garatzeko, ekintzak lankidetzan antolatzeke, eta, oro har, solaskidetzat etengabearen bitartez, hartu-emana estutzeke.
- d) Musika kanpora proiektatzea, Tobera Musika-eskolako ikasleek askotariko musika-taldeak sor ditzaten bultzatzeko eta errazteko.
- e) Badiren beste talde batzuetan ikasleen partaidetza sustatzea (abesbatzetan, e.a.), ikasleen artean musikarekiko interesa areagotzeko leku paregabe modura.
- f) Aurreko idatz-zatian azaldutako jarduerak gorabehera, elkarteak, bere xedeak betetzeko, honako hauek egin ahalko ditu:

- Helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko, era guztietako ekonomia-jarduerak gauzatzea.
- Era guztietako ondasunak edozein tituluren bidez eskuratu eta edukitzea, eta mota guztietako egintzak eta kontratuak egitea.
- Nolanahiko ekintzak burutzea, betiere legeekin eta Estatutuekin bat etorrita.
- Hala, elkarteak, xedatutako objektuak onartu ahal izango ditu eta, dagokion izaerako ekintzaren bitartez, Zuzendaritza-batzordeak eskumena izango du emailak Ohorezko Bazkide izendatzeko.

ELKARTEAREN EGOITZA

3. artikulua.-

Elkarte honen egoitza helbide honetan egongo da, postarako edo edozein jakinarazpenetarako:

Kultura-etxea
Jose Maiora plaza, z.g.
20215 Zegama

Edonola ere, Tobera Musika-eskolak ez dauka jabetzan lokalik, eta Zegaman, Seguran, Zerainen, Mutiloan edo beste edozein lekutan udalek eta hirugarrenek dituztenak erabiltzen ditu, udalek berek eta gainerakoek baimenduta eta lagata.

Elkarteak beste lokal batzuk ere eduki ditzake Autonomia Erkidegoan, dagokion organoak hala erabakitzen badu.

LURRALDE-EREMUA

4. artikulua.-

Elkarte honek nagusiki lurralde-eremu honetan bideratuko ditu bere zereginak: Zegaman, Seguran, Zerainen eta Mutiloan, baina bere jarduera-esparrua eskualdeko edo Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri batzuetara ere zabaltzeko ahal izango du.

IRAUPENA ETA DEMOKRAZIA-ARAUA

5. artikulua.-

Elkartea iraunkorra izateko eratua da eta, IV. kapituluan esaten den bezala, ezohiko batzar orokorrean hartutako erabaki bidez baino ezingo da desegin, edo legeetan aurreikusitako arrazoren batengatik.

Elkartearen funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoak izango dira, eta pluraltasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak izango dira elkarteko oinarritzko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten itunak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.



HERRI ADMINISTRAZIO
ETA JUSTIZIA SAILA
Elkarteen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN
PÚBLICA Y JUSTICIA
Registro de Asociaciones

BIGARREN KAPITULUA

AGINTE- ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

6. artikulua.-

Elkartearen agintea eta administrazioa kide bakarreko eta kide anitzeko organo hauen esku egongo da:

- Kide bakarreko organoak dira: zuzendaria, ikasketa-burua, diruzaina, presidentea, presidenteordea, idazkaria eta eledunak.
- Kide anitzeko organoak dira: Bazkideen Batzar Orokorra (organo goren modura), Zuzendaritza-batzordea eta Langileen Klaustroa.

BATZAR OROKORRA

7. artikulua.-

Batzar Orokorra bazkide guztiek osatzen dute, eta organo honen bidez adierazten dira bazkideen nahiak.

Batzar Orokorraren ahalmenak:

- a) Elkartearen jarduera-plan orokorra onartzea.
- b) Aurreko ikasturteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertzea eta onartzea. Ekitaldiak abuztuaren 31n bukatuko dira. Balantzea egiaztatze eta berrikusteko ardura diruzainarena da.
- c) Zuzendaritza-batzordearen kudeaketa onartzea (Batzararen irizpideen arabera eta bere kontrolpean lan egin beharko duena), eta balizko bestelako lan-taldeena ere bai.
- d) Zuzendaritza-batzordeko kideak izendatzea eta kargutik kentzea, eta, aurrez egindako hauteskundeak baliatuta, Zuzendaritza-batzordea berritzeko ezarritako arauen ondorioz bete gabe geratutako karguak osatzea.
- e) Zuzendaritza-batzordetik edo, gutxienez, Batzar Orokorra egin baino lau egun lehenago presidenteari idatziz zuzenduta, elkarteko bazkideen aldetik eratorritako edozein proposamen aztertzea eta ebaztea.
- f) Estatutuak aldatzea, hurrengo artikuluan xedatzen denaren arabera.
- g) Elkartea desegitea, 4/5en gehiengoa beharrezkoa izango delarik kasu horretan.
- h) Beste elkarte batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietatik ateratzea.
- i) Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
- j) Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

8. artikulua.-

Batzar Orokorrak ohiko bilkurak eta bilkura bereziak edo ezohikoak egingo ditu.

9. artikulua.-

Batzar Orokorrak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilkura: ikasturtearen 2. hiruhilekoaren barruan izango da, 7. artikuluko a), b) eta c) idatziztatietan zehaztutako erabakiak hartze aldera.

10. artikulua.-

Batzar Orokorra Zuzendaritza-batzordeak erabakitzen duenean elkartuko da bilkura berezian, bere ekimenez edota, presidenteari zuzendutako idatzian sinatuta, bazkideen % 25ak eskatu duelako. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira baina, nolana ere, honako gaiak aztertze eta erabakitzeko, bilkura berezia egingo da:

- a) Estatutuak aldatzeko.
- b) Elkartea desegiteko.

11. artikulua.-

Batzar Orokorra -ohikoa nahiz ezohikoa- elkarteko deialdiak idatziz egin behar dira, eta bilkurak egingo diren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gai-zerrenda ere. Deialdia egiten denetik, gutxienez bost egun pasatu beharko dira bilkura lehenengo deialdian egiteko. Hala badagokio, bigarren deialdiaren data eta ordua ere adieraz daitezke. Dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordu erdiko tarte utzi beharko da.

Handia

Urdabete

Bigarren deialdirik egin izan ez balitz, hurrengo lau egunen barruan egin beharko litzateke deialdi hori, aurrekoaren gai-zerrenda berarekin eta aurreko paragrafoan xedatutakoa beteta.

Batzar orokorrak, arruntak nahiz bereziak, lehenengo deialdian balio osoz eratuta geratuko dira botoa emateko eskubidea duten elkartekideen laurdena bertaratzen bada edo ordezkaturia badago; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten elkartekideen kopurua edozein dela ere.

Bazkideek beste edozein bazkideren esku utz dezakete batzar orokorretara joateko ordezkaritza, beti ere, bertaratutako bazkide bakoitzak bertaratu ez diren bi bazkide ordezkatu ahal izango dituelarik gehienez. Ordezkaritza hori idatziz eskuordetu beharko da, eta Batzarreko idazkariari eman bilera baino hiru ordu lehenago gutxienez. Elkartearen egoitza dagoen herritik kanpo bizi diren bazkideek ordezkaritza beste norbaiten esku uzteko agiria postaz bidal dezakete.

12. artikulua.-

Batzar Orokorraren erabakiak gehiengo soilaz hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkaturen baieztoko botoak ezeztokoak baino gehiago direnean. Alabaina, bertaratuen edo ordezkaturen gehiengo kualifikatua beharko da (baieztoko botoak balioztoko botoen erdia baino gehiago izatea, alegia) erabaki hauek hartzeko :

- a) Elkartearen desegiteko. 4/5en gehiengoak beharrezkoa izango da.
- b) Estatutuak aldatzeko. 2/3en gehiengoak beharrezkoa izango da.
- c) Maileguak eskatzeko. 2/3en gehiengoak beharrezkoa izango da.

Botoa emateko modua nominala edo isilpekoa izango da. Azken kasu honetan, beharrezkoa izango da presidentziak hala proposatzea edo bertaratutako hamabost bazkidek gutxienez hala eskatzea.

Zuzendaritza-batzordeko presidentea izango da mahai-buru Batzar Orokorrean, eta berak kalitate-botoa izango du berdinketa gertatzen denetarako. Presidentea egongo ez balitz, presidenteordea izango da mahai-buru, eta berak izango du kalitate-botoa.

Estatutuotako hirugarren atalean zehaztutakoaren arabera bazkide diren guztiak izango dira Batzar Orokorreko kide ahots eta botoarekin.

Ohiko Batzar Orokorretan eta Ezohikoetan, deialdian jasotako gaiak baino ez dira jorratuko.

ZUZENDARITZA-BATZORDEA

13. artikulua.-

Zuzendaritza-batzordea osatuko dutenak honakoak izango dira, gehien jota: presidentea (beharrezkoa), presidenteordea, idazkaria (beharrezkoa), diruzaina (beharrezkoa), eskolako zuzendaria, elehun bat Zegamako Udaletik, beste elehun bat Segurako Udaletik, beste bat Zeraingotik edo Mutiloakotik, eta 5 elehun familien ordezkari modura.

Elkartearen Barne-araudian ezarritako prozeduraren arabera izendatuko dira aipatu karguak betetzeko kideak. Prozedura hori berrikusi egin da Estatutu hauek eguneratzearekin batera, eta horrela geratuko da: zuzendaritza-kide izandako bikote-kiderik ez duen familia-unitatea izango da hautagai. Hauteskunde-sistemaren bitartez, familia-unitatea hautatuko dute bazkideek (egungo herrien kasuan, bi zerrenda osatuko dira: bat Zegamako hautagaiekin, eta bestea Segurakoekin, Zeraingotekin eta Mutiloakotekin -eta egon litezkeen bestelakoekin-batera). Hautatu gertatutako familia-unitateak konpromisoa hartu beharko du kide-ordezkari bera joan dadin Zuzendaritza-batzordearen bileretara. Familia-unitate beraren adin txikiko eta adin nagusiko seme-alaba edo tutoretzapekoak ari badira aldi berean musika-eskolan ikasle, familia-unitatea izango da hautagai; adin nagusiko ikasleen kasuan, familia-unitateko beste kiderik ikasle ez bada, adin nagusiko ikaslea bera izango da hautagai (eta ez bere familia-unitatea). Familia-unitate bakoitzak edo adin txikiko senitartekorik musika-eskolan ez duen adin nagusiko ikasle-hautagai bakoitzak, boto bana izango dute.

Hilean behin elkartu ahal izango dira, edo elkartearen jarduerak bideratzeko beharrezkoa den maiztasunarekin.

14. artikulua.-

Zuzendaritza-batzordea behin eratuta, bertako kideek adostuko dute Batzar Orokorrak izendatutako karguez gain esleitu nahiko litzuketen bestelako balizko ardurak nola banatu (dantzatako arduradun nor izango den edo beste edozein).



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HERRI ADMINISTRAZIO
ETA JUSTIZIA SAILA
Elkarteen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN
PÚBLICA Y JUSTICIA
Registro de Asociaciones

Handwritten signature in blue ink.

Handwritten signature in blue ink, with the name 'Zuzendaritza' visible.

Karguak derrigorrezkoak eta ordainik gabekoak izango dira –salbu eta eskolako zuzendariarena–, nahiz eta Batzar Orokorrak erabaki ahal izango duen dietak eta gastuak ordaintzea, egoeraren salbuespenezko izaerak hala eskatuz gero.

Derrigortasuna irtetera doan Zuzendaritza-batzordeak barkatu ahal izango lioke hala eskatzen duenari, era berean, erabakiko duelarik Elkartean kide izaten jarraitzen utziko dion ala ez.

15. artikulua.-

Zuzendaritza-batzordeko kideren bat bilera horietara 3 aldiz jarraian, edo, tarteka 6 aldiz agertzen ez bada, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen. Bestelako neurrien kaltetan izan gabe, hala jokatzeko duen kideari eskolaren funtzionamenduarekin lotutako zereginak bere gain har ditzan ezar lekioko: bulegoko lanak egitea, jendaurreko emanaldietarako muntatze-lanaz arduratzea, e.a.

16. artikulua.-

Batzar Orokorrak hautatuko ditu Zuzendaritza-batzordeko kargudunak. Kargu horiek bi urterako izendatuko dira, Batzordeak berariaz baliogabetu ezean. Karguak partzialki aldatuko dira urtero, aldiko, kideen erdia berrituko delarik, jarraian adierazita datorren eran:

- a.- presidentea, diruzaina eta bi eledun.
- b.- presidenteordea, idazkaria eta hiru eledun.

Batzar Orokorrak izendatutako Zuzendaritza-batzordekideetakoren bat kargurako bigarren aldiz hautatua izango balitz, uko egin ahal izango lioke oraindik zuzendaritza-kide izan ez den bazkiderik balego (bazkide bezala honakoak ulertuta: adin txikiko ikaslearen aita, ama edo tutorea, zein adin nagusia den ikaslea bera, adin txikiko senitartekorik ez badu musika-eskolan). Uko egiteko eskubide bera izango du zuzendaritza-kide izandakoaren familia-unitate bereko beste kideren batek ere hautatua izango balitz, salbu eta adin nagusiko egitearen ondorioz hautatua izan bada. Alegia, azken kasu horretan, bere familia-unitateak egin beharra beteta izanda ere, 18 urte bete(ak) dituen ikaslea hautagai izango da. Familia-ordezkaritza beste ikastetxeren batean betetzen ari den familiari ere, uko egiteko eskubidea aitortuko zaio.

Gerta litekeenez, adibidez, bazkide laguntzailearen ordezkaritzan aritu izana pertsona bat eta gero pertsona hori bera familia-unitateko kide izatea edota adin nagusiko ikasle, egoera hori ez da izango hautagai eta Zuzendaritza-batzordeko kide izateari uko egiteko arrazoi (ordezkaritza-maila desberdinak direlako bata zein bestea).

17. artikulua.-

Zuzendaritza-batzordeko kide izateko, ezinbestean baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dauden legeetan bildutako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.
- b) Estatutuetan aurreikusitako moduan izendatua izatea.
- c) Elkarteko bazkidea izatea.

19. artikulua.-

Zuzendaritza-batzordeko kideek kasu hauetan utziko dituzte karguak:

- a) Agintealdia bukatzen denean.
- b) Bazkide izateari uzten diotenean, edo kargua betetzeko ezintasun-arrazoiak dituztenean.
- c) Estatutu hauetako 14. eta 16. artikuluko aplikatuz, Batzar Orokorrak kargua baliogabetzea erabakitzen duenean.
- d) Hiltzen baldin badira.

'a)' idatz-zatian agertzen dena baldin bada kargua uzteko arrazoi, Zuzendaritza-batzordeko kideek jardunean jarraituko dute lehenengo Batzar Orokorra egin arte. Batzar horretan aukeratuko dira kargudun berriak.

'b)', 'c)', eta 'd)' idatz-zatietan agertzen dena baldin bada arrazoi, hutsik utzi ahal izango da kargua ala hutsik geratutako kargua betetzeko norbait behin-behineko izendatuko du Zuzendaritza-batzordeak, eta Batzar Orokorrak erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Ezetsi egiten badu, behar diren kargu-izendapenak egingo ditu. 13. artikuluan beharrezkotzat jotako karguetakoa baldin bada hutsik geratutakoa, azaldutako bigarren moduan aritu beharko da: behin-behineko izendapena egin beharko du derrigor Zuzendaritza-batzordeak, gainerako Zuzendaritza-kideen artean hautatuta edo hirugarren bazkide bat proposatuta.

Organo honen osieran egiten diren aldaketa guztien berri emango zaio Elkarteen Erregistroari.



HERRI ADMINISTRAZIO
ETA JUSTIZIA SAILA
Elkarteen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN
PÚBLICA Y JUSTICIA
Registro de Asociaciones

Handwritten signature in blue ink, likely of a representative of the Basque Government or the Department of Administration and Justice.

Handwritten signature in blue ink, likely of a representative of the Basque Government or the Department of Administration and Justice.

20. artikulua.-

Honako hauek dira Zuzendaritza-batzordearen zereginak:

- a) Elkartearen eguneroko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren jarraibideekin bat etorritik eta haren kontrolpean.
- b) Elkarrekin aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea.
- c) Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko ekitaldiko kontuen egoera Batzar Orokorrari aurkeztekoa, hark onartu ditzan.
- d) Batzar Orokorraren bileretako gai-zerrendak egitea, eta ohiko nahiz ezohiko Batzar Orokorrarako deialdiak egitea erabakitzea.
- e) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horien inguruan hartu beharreko neurriak hartzea.
- f) Zehapenak jartzea, baita Batzar Orokorrari bazkideren bat behin betikoz kaleratzeko proposamena egitea ere.
- g) Estatutu hauetako aginduak eta Elkartearen balizko Barne-araudiari dagozkionak interpretatzea, betetzea eta bete araztea, eta Estatutuetako hutsuneak osatzea, betiere elkarrekin inguruan indarrean dauden legeekin bat etorritik.
- h) Musika-eskolako zuzendaria hautatzea.
- i) Ohiko Batzar Orokorrean onartzeko aurkeztutako diren urteko memoria edo oroitidazkia, diru-kontuen kitapena edo balantzea eta aurrekontua onartzea.
- j) Batzar Orokorrak berariazko erabakien bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

21. artikulua.-

Zuzendaritza-batzordearen bilkurak presidenteak 13. artikuluan esandakoaren arabera "motu propio" erabakitzen duenean edo Zuzendaritza-kideen 1/3ak eskatzen duen bakoitzean egingo dira. Bilkurako buru presidentea izango da, edo, bera bertan ez balego, presidenteordea, eta, horien faltan, batzordekide zaharrena.

22. artikulua.-

Zuzendaritza-batzordearen bilerak baliozkoak izango dira kideen erdia bertaratutakoan. Bigarren deialdian egin ahal izango dira bilerak lau kide gutxienez daudenean, lehenengo deialditik hamabost minutu pasatu direnean, eta berdin-berdin izango da baliozkoa orduan hartutako edozein erabaki.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, elkartu diren batzordekideen gehiengo sinplea behar da. Berdinketarik egonez gero, presidentearen -edo, aurreko artikuluan esandakoaren bidetik, bere ordez jarduten duenaren- kalitateko botoa izango da erabakiko duena.

Idazkariak bilera-aktak egingo ditu eta akta horiek gero dagokion liburuan transkribatuko dira, presidentearen oniritziarekin.

LANGILEEN KLAUSTROA

23. artikulua.-

Langileen Klaustroa Tobera Musika-eskolan eskolak ematen dituzten irakasle guztiek eta zuzendariak osatuko dute, eta zuzendariaren kontsulta- eta aholkularitza-arganoa izango da. Zuzendariak deituko ditu bilerak, mahai-buru izango da eta saiok gidatuko ditu, eta ikasketa-burua izango da idazkaria eta bilera guztietako aktak idatziko ditu. Ikasketa-bururik ez balego, langileen artean banatuko da zeregin hori.

24. artikulua.-

Langileen Klaustroa zuzendariak aurrez deituta elkartuko da, bai berak nahieran erabakita, bai bere kideen herenak eskatuta. Ikasturtearen eskola-garaian, ahal dela, hilean behin elkartuko da.

25. artikulua.-

Honako hauek dira Langileen Klaustroaren zereginak:

- a) Ikastetxearen jardura akademikoaren eta ekonomikoaren egoera eta bilakaera ezagutzea.
- b) Eskolen ordutegia eta ekintzen plangintza orokorra eratuko dituzten irizpideak ezartzea, horiek erregulatzeko dauden arau orokorrak aintzat hartuta.
- c) Garatutako eskola-jardura ezagutzea eta irakaste-metodoak baimentzea, eta zuzendariari balizko hobekuntzak eta esperientziak erabilgarri eta beharrezko gisa ageriko egin dituen aldaketak proposatzea, berak Zuzendaritza-batzordeari aurkez diezazkion.
- d) Tobera Musika-eskolako Aginte- eta Administrazio-arganoek nahiz indarrean diren musika-hezkuntzako araudiek esleitutako beste edozein.



HERRI ADMINISTRAZIO
ETA JUSTIZIA SAILA
Elkarrekin Erregistra
DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN
PÚBLICA Y JUSTICIA
Registro de Asociaciones

KIDE BAKARREKO ORGANOAK

PRESIDENTEA

26. artikulua.- Lehendakari edo presidenteak bere gain hartuko du Elkartearen legeko ordezkaritza, eta Zuzendaritza-batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak gauzatzeko ditu. Alpaturiko bi organo horietako presidentea izango da gainera. Era berean, honako Estatutuak kontuan har daitezten eta bete daitezten eragingo du, eta beste horrenbeste horien garapen modura sor litekeen Barne-araudiaren gainean ere.

27. artikulua.- Presidenteak Zuzendaritza-batzordearen edo Batzar Orokorraren bezala berariaz jasota ez dauden eskumenak izango ditu, eta, bereziki, honako hauek egiteko ahalmena izango du:

- Elkartea ordezkatzeko ekitaldi, kontratu eta beharrezko izapidetze guztietan, pertsona fisiko eta juridikoen aurrean, orotariko aginteetan, epaitegietan, auzitegietan eta erakunde publikoetan.
- Zuzendaritza-batzordearen eta Batzar Orokorraren bilera-deialdiak egitea, bilerak bukatutzat ematea, bileretan sortzen diren eztabaidak bideratzea, eta, boto-berdinketa gertatuz gero, kalitate-botoarekin erabakitzea.
- Zuzendaritza-batzordeak hartutako erabakiak egikaritzea (ordainketak egiteko agintzea...).
- Sortzen diren premiazko arazoak konpontzea, eta egiten den lehenengo bilkuran Zuzendaritza-batzordeari horren berri ematea.
- Elkartearen zereginak eta ekintzak bultzatu eta bideratzea.
- Zerbitzu guztietako arduradunen kudeaketa kontrolatzea, beharrezko diren premiazko erabakiak hartuta eta egiten den lehenengo bilkuran Zuzendaritza-batzordeari horien berri emanda.
- Elkartearen dokumentu guztiak sinatzea. Akten egiaztagirien kasuan, idazkariarekin batera sinatu beharko du, eta banketxeetatik dirua ateratzeko, diruzainarekin batera.

Hemen jasotako zereginak eskolako zuzendari-kudeatzailearengan delegatuta gera litezke automatikoki eta kontrakorik erabaki ezean, funtzionamendua praktikoagoa eta eragingarriagoa egiteko. Honenbestez, "g)" puntuaren kasuan, berak bakarrik sinatzeko aukera izango du "ordez" formulapean.

PRESIDENTEORDEA

28. artikulua.- Lehendakariorde edo presidenteordeak presidenteari lagunduko dio, eta presidenteak aldi batean bere kargua bete ezin badu, presidenteordeak ordezkatzeko du. Era berean, presidenteak berariaz eskuordetzen dizkion ahalmen guztiak izango ditu.

IDAZKARIA

29. artikulua.- Honako hauek dira idazkariaren zereginak:

- Bazkideen Erregistro-liburua idaztea, egiaztatzea, eguneratzea, artxibatzea eta zaintzea.
- Batzar Orokorrean eta Zuzendaritza-batzordearen bileretan jasotako aktak idaztea eta komunikatzea, bai eta bestelako oharak ere. Era berean, Akta-liburua idatzi eta zainduko du.
- Bilera horietako aktak eta horien gaineko egiaztagiriak sinatzea, presidentearen oniritziarekin.
- Zuzendariak edo Langileen Klaustroan idazkari denak helarazitako korrespondentzia jasotzea eta ordenatzea.
- Elkartearen jarduerarekin lotuta jasotako eskabide, eskaera eta erreklamazioen berri presidenteari eta Zuzendaritza-batzordeari ematea.
- Presidenteari laguntzea gai-zerrenda egiten.
- Elkartearen kudeaketa administratiboa kontrolatzea -ikasle-taldearen izenemateak izan ezik-, eta Zuzendaritza-batzordeko izendapenen eta egoitza sozialaren aldaketen berri emateko egin beharreko jakinarazpenak egitea aginte eskudunari.
- Elkartearen eta udalen arteko harreman administratiboak koordinatzea.
- Elkarteen arloan indarrean dauden legeko xedapenak betetzeaz arduratuko da.

Hemen jasotako zereginak eskolako zuzendari-kudeatzailearengan delegatuta gera litezke automatikoki eta kontrakorik erabaki ezean, funtzionamendua praktikoagoa eta eragingarriagoa egiteko.



HERRI ADMINISTRAZIO
ETA JUSTIZIA SAILA
Elkarteen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN
PÚBLICA Y JUSTICIA
Registro de Asociaciones

Lehendakari

Idazkari

DIRUZAINA

30. artikulua.-

Egindako diru-sarrera eta ordainketa garrantzitsuenen berri emango du diruzainak, eta diru-sarrera eta gastuen urteko aurrekontua eta urte bakoitzeko abuztuaren 31n bukatutako aurreko ekitaldiko kontuen egoera ere jakinaraziko du. Horiek guztiak Zuzendaritza-batzordeari aurkeztu beharko dizkio, eta horrek Batzar Orokorrari, hark onar ditzan. Halaber, bere zereginari lotutako korrespondentzia txukun idatzi, artxibatu, sailkatu eta zaindu beharko du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HERRI ADMINISTRAZIO
ETA JUSTIZIA SAILA
Elkarteen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN
PÚBLICA Y JUSTICIA
Registro de Asociaciones

ZUZENDARIA

31. artikulua.-

Zuzendariaren ardura dira ikastetxearen zuzendaritza eta ekintza guztien gidaritza, maila teknikoari dagokionez. Irakasle-taldearen koordinazioa eta talde-lana ziurtatuko ditu, ikasleen hezkuntza-jarduera unitario eta orekatuak eskatzen duenaren baitan.

32. artikulua.-

Honako hauek dira zuzendariaren zereginak:

- Langileen Klaustro-bilerak deitzea, garrantzizko irizten dizkien gaien inguruan, eta horietan mahai-buru izatea.
- Zuzendaritza-batzordea aholkatzea eta bertara eramatea, txostenen bitartez, irakasleen eta ikasleen eskari eta kezka guztiak.
- Irakasleek behin-behineko zerbitzua emateari uzteko baimenak ematea edo baimenak emateko proposamena egitea Zuzendaritza-batzordeari, horretarako premiazko egoera arrazoitua ematen denean.
- Elkartean egiten dutenaren gaineko jarraipen etengabearen bitartez, harreman zuzena izatea irakasleekin eta aholkularitza ematea.
- Antzeko ikastegiekin harremanak izatea.
- Familien (gurasoen, tutoreen...) eskaerak, iradokizunak eta kezkak erantzutea.
- Zuzendaritza-batzordeari amaitutako ikasturtearen memoria edo oroitidazki laburra egitea eta aurkeztea urtero idatziz.
- Ikasleen izenemateak egitea eta kontrolatzea, eta Zuzendaritza-batzordeari horien eta ikastetxeko ikasleen zerrendatze eguneratuen berri ematea.
- Zuzendaritza-batzordeak eskatuta, Elkarateak ongi funtzionatzeko beharrezkoak izan litekeen laguntza administratiboko zereginak egitea.
- Ikastetxeko ikasleen eskola-espeditenteak egitea, modu ordenatuan sailkatzea, artxibatzea eta zaintzea. Aipatu espeditenteak egiteko ardura ikastetxeko irakasleengan delegatu ahal izango du, prozedura irakasleekin kontrastatuta eta egiaztatuta.
26. eta 29. artikuluetan esandakoak ere ikusi. Kide bakarreko edo anitzeko bestelako organori berriaz emana izan ez zaion beste edozein eskumen ere izan dezake.

IKASKETA-BURUA

33. artikulua.-

Bera aukeratzeko modua zuzendariaren bera izango da. Estatutu hauek eguneratzen diren unean, zuzendariak hartzen ditu bere gain ardura hauetako gehienak. Edonola ere, zabalik utzi nahi da figura hau sortzeko aukera.

Honako hauek dira ikasketa-buruaren zereginak:

- Irakasgai guztien programazioa, bete dadin zaindaz.
- Ikasleen eta irakasleen lana ordenatzea eta koordinatzea, ordutegiak, eskolak...
- Beste ikastegi batzuetan erabiltzen diren eta Tobera Musika-eskolako irakaste-sistemak hobetzeko balio izan dezaketen metodoak aztertzea.
- Langileen Klaustroko idazkari izango da, karguak eskatzen dituen funtzioak bete beharko dituelarik.
 - * Aktak eta bestelako jakinarazpenak idaztea eta Klaustroko kideei jakinaraztea.
 - * Langileen Klaustroaren akta-liburua zaintzea.
 - * Bertako aktak eta egiaztagirak sinatzea, zuzendariaren oniritziarekin.
- Zeregin akademiko-pedagogikoetan zuzendariari laguntzea.
- Musika-eskolaren jabetzakoak diren baliabide akademiko eta didaktikoen inbentarioa egitea, eguneratzea, kontrolatzea eta artxibatzea, eta zuzendariari jakinaraztea ildo honetan beharrezkoa izan litekeena eta irakaskuntzarako, oro har, interesgarri izan litekeena (liburuak, musika-tresnak...).
- Ikastetxeko jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak planifikatzea eta koordinatzea (ikasleen kontzertuak, entzunaldiak, irteerak musika-emanalditara, e.a.).

ELEDUNAK

34. artikulua.- Eledunak Zuzendaritza-batzordearen bileretara joan beharko dira ahots eta botoarekin, eta bertan erabakitako zereginak egin beharko dituzte.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: ONARTUAK IZATEKO BALDINTZAK ETA PROZEDURAK, ETA BAZKIDE-MOTAK

35. artikulua.- Tobera Musika-eskola Elkarteko bazkide izango dira aipatu musika-eskolan ikasten seme-alaba edo tutoretzapekoa duten aita, ama edo tutoreak, edota adin nagusiko ikasle direnak (azken kasu honetan, adin txikiko senitartekorik musika-eskolan izena emanda ez badute), baldin eta norberaren eskubideak erabiltzeko inolako lege-baldintzaren menpe ez badaude eta ebazpen judizial irmoaren bidez eskubideen erabilera mugatuta ez badute.

BAZKIDE LAGUNTZAILEAK

36. artikulua.- Elkartean sartu nahi duenak, aurreko artikuluan adierazitako baldintzak bete gabe, idatziz aurkeztu beharko dio Zuzendaritza-batzordeari bere eskabidea, eta, egitekoa duen hurrengo bileran, bazkide-tza-eskaera onartzea ala ez erabakiko du Zuzendaritzak. Bazkide laguntzaileek Batzar Orokorraren bileretara joan ahal izango dute, ahotsarekin, baina boto-eskubiderik gabe.

OHOREZKO BAZKIDEAK

37. artikulua.- Elkartearen helburuak lortzeko bidean Elkartearekin lankidetzan aritzeagatik, Tobera Musika-eskolako ohorezko bazkidearen kontsiderazioa ematea erabaki dezake Batzar Orokorrak pertsona fisiko zein juridiko horiei.

Bazkide hauen trataera ohorezkoa besterik ez da eta, honenbestez, izendapenak ez dio bazkideari izaera juridikorik aitortuko, ezta eskubiderik ere Elkartearen Aginte-eta Administrazio-organotan parte hartzeko, eta, era berean, betebeharrak orotatik salbuetsita egongo da.

38. artikulua.- Zegamako, Segurako, Zeraingo eta Mutloako Udalek (eta aldian-aldian -baldintza berdinak betetzen dituztelako- erabaki litekeen beste edozeinek), Tobera Musika-eskolaren erakunde laguntzaile modura, Elkartearen Zuzendaritza-batzordean eta Batzar Orokorrean parte hartzeko eskubidea izango dute, Estatutuotan xedatutakoaren arabera.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

39. artikulua.- Elkarteko bazkide guztiek honako hauek denak egiteko eskubidea dute:
- 1) Elkarteei buruzko Legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta jardunak inpugnatzea, inpugnatutako erabakiaren edukia ezagutu duten edo ezagutzeko aukera izan duten egunetik 40 egun naturaleko epean.
 - 2) Elkarteko gainerako kideen identitatea edo nortasuna, gobernu- eta ordezkaritza-organoen osaketa, elkartearen diru-sarreraren eta gastuen egoera, eta elkartearen ekintzen garapena edozein unetan ezagutzea, datu pertsonalak babesteko arautegian aurreikusitakoa aintzat hartuta.
 - 3) Batzar Orokorrerara joan eta hitz egin eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea. Bazkide laguntzaileek eta ohorezko bazkideek ez dute eskubide hau izango.
 - 4) Elkartearen Estatutu hauen arabera, elkarteko zuzendaritza-organismoetan parte hartzea eta organo horietarako hautatzaile nahiz hautagai izatea. Bazkide laguntzaileek eta ohorezko bazkideek ez dute eskubide hau izango. Bazkide laguntzaileen kasuan, ordea, boto-eskubidea izango dute Zuzendaritza-batzordearen bileretan, *kide 1 = boto 1* baliokidetasunaren barruan (langileek -zuzendariak eta, balego, ikasketak-buruak, adibidez-, boto-eskubiderik ez dutela kontuan hartuta).
 - 5) Indarrean dauden legeetan zehaztutako bazkideen fitxategian agertzea, eta elkartearen ikurra, baldin badu behintzat, erabiltzea.
 - 6) Estatutuen eta, egonez gero, barne-araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-organismoen eskakizunak eta kexak aurkezteak.
 - 7) Elkartearen talde-ekintza sozialetan parte hartzea, eta bazkideentzako erabilera komuneko tresnak erabiltzea (elkartearen egoitza, liburutegiak, eta abar), Zuzendaritza-batzordeak kasuan kasu erabakiko duen moduan.



HERRI ADMINISTRAZIO
ETA JUSTIZIA SAILA
Elkarteen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN
PÚBLICA Y JUSTICIA
Registro de Asociaciones

- 8) Bazkideari diziplinazko neurriak ezarri aurretik, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiak buruzko azalpenak jasotzea. Neurriak hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean soilik oinarritu daitezke.
- 9) Batzar Nagusirako ahots- eta boto-ordezkaritza beste bazkide baten esku uztea, Estatutuotako 11. artikulua xedatu bezala.

40. artikulua.-

Bazkideen betebeharrak hauek dira:

- a) Estatutuak eta Barne-araudia betetzea, horietatik eratorritako bestelako betebeharrak betetzea, Elkarteak zuzendaritza-organismoek hartutako baliozko erabakiei (Batzar Orokorraren xedapen eta arauak eta Zuzendaritza-batzordearen erabakiei) men egitea eta erabaki horiek betetzea.
 - b) Elkartearen prestigioa eta interesak zaintzea eta defendatzea uneoro, eta Elkartearen helburuak betetzen aktiboki laguntzea.
 - c) Zuzendaritza-batzordeak ezarritako kuotak eta gisakoak ordaintzea (dagozkien zenbatekoarekin eta epean), ikastetxearen gastuak estaltzen laguntzeko.
 - d) Bete dezan hautatua izan den kargua onartzea, 16. artikuluan jasotako uko egiteko aukerak tarteko ez badira.
- Jasotakoa bete ezean, Zuzendaritza-batzordeak erabakitako diziplinazko neurrien baitan geratuko dira.

BAZKIDE IZATEARI UZTEA

41. artikulua.-

Bazkide izateari uzteko arrazoiak honakoak izango dira:

1. Hiltzea.
2. Bazkidea bere borondatez joatea.
3. Zuzendaritza-batzordeak elkartetik bidaltzeko zigorra ezartzea, arrazoi honengatik: Estatutuotatik eta Elkarteen Legetik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza-batzordeak hartutako baliozko erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausteagatik. Zigortzeko erabakia arrazoitu egin beharko da beti, eta erabaki horren aurkako errekurtsioa jarri ahal da Batzar Orokorraren aurrean.

ZIGOR-ARAUAK

42. artikulua.-

Bazkideek behin eta berriz hausten badituzte Estatutuak edo Batzar Orokorrak nahiz Zuzendaritza-batzordeak hartutako erabakiak, Zuzendaritza-batzordeak bazkide horiek zigortu ahal izango ditu.

15 egunetik hilabetea bitarte eskubideak kentzetik, Elkartetik betiko kanporatzera arte ezar daitezke zigorra, ondorengo artikuluek adierazitako terminotan.

Horretarako, zigorgarriak izan daitezkeen jokabideak aztertzeko ikerketa egin dadila erabaki dezake presidenteak. Ikerketaren instrukziogilea idazkaria izango da, eta berak proposatuko dizkio Zuzendaritza-batzordeari hartu beharreko neurriak.

Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza-batzordeak izango du, eta, zigorra ezarri aurretik, interesdunari entzunaldia eskainiko zaio. Zigortzeko erabakia arrazoitu egin beharko da beti, eta erabaki horren aurkako errekurtsioa jarri ahal da Batzar Orokorraren aurrean, honako Estatutuaren aurreikusitako ekinbideak abiatzearen kaltetan izan gabe.

43. artikulua.-

Bazkideren batek elkartetik kanporatua izateko moduko ustezko egintzaren bat egiten badu, hau da, Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza-batzordeak hartutako baliozko erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausten baditu, gertaeren berri izatearren, presidenteak idazkariari agindu diezaike aurretiazko eginbide zehatz batzuk egin ditzala, behar den informazioa jasotzeko. Eginbide horiek ikusita, presidenteak jarduerak artxibatuzko agintzea edo Elkartetik kanporatzeko zigor-espeditentari hasiera ematea erabaki dezake.

Elkartetik kanporatzeko zigor-espeditentia hasten bada, idazkariak, gertakariak egiaratu ondoren, idatzia bidaliko dio interesdunari, leporatzen zaizkion karguen berri emateko. Kargu horiei erantzuteko, interesdunak bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu hogeitau eguneko epean. Edonola ere, epe hori amaituta, Zuzendaritza-batzordearen lehenengo bilkurako gai-zerrendan sartuko da kasua, eta Batzordeak hartuko du dagokion erabakia, berau osatzen dutenen 2/3eko quorumarekin.



HERRI ADMINISTRAZIO
ETA JUSTIZIA SAILA
Elkarteen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN
PÚBLICA Y JUSTICIA
Registro de Asociaciones

44. artikulua.-

Elkartetik kanporatzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio eta, era berean, hurrengo Batzar Orokorrean errekurtsua aurkez dezakeela azalduko zaio. Hala egitea erabakitzen baldin badu, Batzarra hilabete eta erdiko epearen barruan egin beharko da, Zuzendaritza-batzordeak erabakia hartu duenetik kontatzen hasita. Bitartean, presidenteak inputatuari bazkide-eskubideak etetea erabaki ahal izango du, eta, Zuzendaritza-batzordeko kide bada, kargu hori utzarazi beharko dio.

Batzar Orokorrari kanporatzeko espedienteak aurkeztuz gero, idazkariak espedientearen laburpena egingo du, Zuzendaritza-batzordeak interesdunak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatza Batzar Orokorrari eman ahal izateko, azken horrek dagokion erabakia har dezan.

45. artikulua.-

Kanporatzeko erabakia arrazoitu egin behar da beti, eta erabaki hori interesdunari idatziz jakinarazi behar zaio ebazpena hartu denetik 10 eguneko gehienezko epearen barruan. Interesdunak, berea duen eskubideaz baliatuta, auzitegiara jo ahal izango du bere ustez erabakia legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.

46. artikulua.-

Bazkideren bati kanporatzearen berri ematerakoan —berak nahi izanda edo zigorra ezarri zaiolako— bete gabe dituen betebeharrak bete ditzala eskatuko zaio, halakorik balu.

LAUGARREN KAPITULUA

ONDARE SOZIALA ETA AURREKONTU-ARAUAK

47. artikulua.-

Elkartearen ondare soziala 6.010,12 eurokoa da, musikaren irakaskuntzarako musika-tresnen eta material didaktikoaren eta bibliografikoaren baliokidea (hasierako ondarea, berriz, 1.800,00 eurokoa da).

Tobera Musika-eskola Elkartea irabazi-asmorik gabe eratu denez, soberakin ekonomikoak, baleude, ezingo dira inolaz erabili segidakoaz bestelakoetarako: instalazio berriak sortzeko edo daudenak hobetzeko, lokalak eta materialak erosteko, ikasketa-bekak eta ikasketak gehitzeko laguntzak eskaintzeko, musika-ezagutza handitzeko bidaletarako, edo Zuzendaritza-batzordeak ontzat emandako bestelako xedetarako.

48. artikulua.-

Elkartearen ekintzak aurrera eramateko Elkartek aurreikusi dituen baliabide ekonomikoak ezingo dituzte inolaz bazkideek beren artean banatu, eta ondorengoak izango dira:

- a) Ekarpenak eta sarrera-kuotak eta aldizkakoak, Estatutuotan aurreikusitako moduan onartutakoak.
- b) Elkartearen ondasun eta eskubideetatik datozen emaitzak, eta legez jasotzen dituen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
- c) Estatutuen helburuak lortzeko, Elkartek garatutako jarduera zilegietatik datozen diru-sarrerak.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

49. artikulua.-

Zuzendaritza-batzordearen ekimenez edo izena emandako bazkideen % 25k eskatu eta Zuzendaritza-batzordeak hala onartuta aldatu ahal izango dira Estatutuak. Zuzendaritza-batzordeak hiru zuzendaritza-kidek eta bi bazkidek osatutako batzorde-txostengile bat izendatuko du, aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo hori Zuzendaritza-batzordeak ezarritako jarraibideen arabera egingo da, eta Batzordeak berak jarriko du egitasmoa amaitzeko epea. Estatutuak aldatzea propio horretarako deitutako bazkideen Ezohiko Batzar Orokorrean erabaki behar da (Batzarraren helburu bakarra horixe izango da).

50. artikulua.-

Aldaketa-egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, presidenteak Zuzendaritza-batzordearen hurrengo bilkurako gai-zerrendan sartuko du. Zuzendaritza-batzordeak egitasmoa onartuko du edo, bestela, lan-taldeari itzuliko dio, berriz azter dezan.

Egitasmoa onartuz gero, Zuzendaritza-batzordeak hurrengo Ezohiko Batzar Orokorreko gai-zerrendan sartzea erabakiko du edo, bestela, horretarako propio deituko du Ezohiko Batzar Orokorra.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HERRI ADMINISTRAZIO
ETA JUSTIZIA SAILA
Elkarteen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN
PÚBLICA Y JUSTICIA
Registro de Asociaciones

51. artikulua.-

Batzarrerako deiarekin batera, Estatutuetak aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa horiek Ezohiko Batzar Orokorrari helaraziko zaizkio, Batzarra egin baino hiru egun lehenago jaso badira idazkaritzan. Hala eskatzen duten bazkideei onartzeko proposatuko den testu osoaren kopia helaraziko zaie.

Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke, idatziz, eta testu alternatiboarekin batera aurkeztu beharko dira. Zuzenketak bozkatu ostean, Ezohiko Batzar Orokorrak Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatzen denetik aurrera baino ez du eragina izango hirugarrenengan.

Batzarrerako deia zortzi eguneko gutxieneko aurrerapenarekin iragarriko da Tobera Musika-eskolaren iragarki-taulan. Deialdiarekin batera, iragarki-taulan bertan, aldatu nahi diren Estatutuen testua eta proposatutako testu berria jarriko dira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HERRI ADMINISTRAZIO
ETA JUSTIZIA SAILA
Elkarteen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN
PÚBLICA Y JUSTICIA
Registro de Asociaciones

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ZERTARAKOA

52. artikulua.-

Elkartea arrazoi hauengatik desegingo da:

1. Bazkideek hala nahi dutelako. Nahi hori horretarako elkartutako Ezohiko Batzar Orokorrean azaldu beharko da, eta bertaratutako edota ordezkaturako bazkideen 4/5ek eman beharko dute aldeko botoa nahia onar dadin.
2. Kode Zibileko 39. artikuluan jasotako arrazoiengatik.
3. Epai irmo batek elkartea desegitea agindu duelako.

53. artikulua.-

Elkartea deseginez gero, erabakia hartu duen Ezohiko Batzar Orokorrak Kitapen-batzordea izendatuko du. Batzorde hori Zuzendaritza-batzordeko hiru kidek osatuko dute (herri bakoitzeko batek: Zegama, Segura eta Zerain+Mutilloa) eta dagoen diruaz arduratuko da.

Bazkideekiko eta besteekiko elkarte-betebeharrak bete ondoren, geratzen den elkarte-ondarea, geratzen bada behintzat, Zegamako, Segurako, Zeraingo eta Mutilloako Udaletako Kultura-batzordeetara bideratuko da, Batzar Orokorrak erabakitako proportzioan eta moduan. Hartzaile horiek irabazi-asmorik gabekoak izango dira eta, edonola ere, bestela, irabazi-asmorik gabeko ekimenetarako erabili beharko dute emandako ondarea.

AKZEN XEDAPENAK

LEHENENGOA

Zuzendaritza-batzordea izango da Estatutu hauetan jasotako arauak interpretatzeko eta balizko hutsuneak betetzeko organo eskuduna, Elkarteei buruz indarrean den legeria errespetatuta beti ere eta egitekoa den hurrengo Batzar Orokorraren bilerari onetsi dezan aurkeztuko zaiolarik ebatzitakoa.

BIGARRENA

Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak Barne-araudia onartu ahal izango du, baina horrek inolaz ere ez ditu Estatutuetakoa aginduak aldatuko.

Zegaman, 2015eko otsailaren 24an

AS/G/ 2172 / 1990

Estatutu hauek ikus-onetsi dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erroldal Nagusiaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 29ko 145/2008 Dekretuan eta horrekin bat datozen gainontzeko arauetan zehaztutako ondorioetarako

2015 URR. 16
OCT. 16

Visados los presentes Estatutos, a los efectos determinados en el Decreto 145/2008, de 29 de julio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro General de Asociaciones del País Vasco y demás normativa conexas.

ELKARTEEN ERREGISTROA / REGISTRO DE ASOCIACIONES



HERRI ADMINISTRAZIO
ETA JUSTIZIA SAILA
Elkarteen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN
PÚBLICA Y JUSTICIA
Registro de Asociaciones

